



DEBABARRENEKO UDALEN

ARDATZA egitasmoa

SARRERA

- **Lan munduaren euskalduntzeak bultzada indartsua behar du,** enpresetan gizarteko beste alorretan baino gutxiago erabiltzen baita euskara.
- Horregatik, Debabarreneko udalok, lan arloan **euskara bultzatzeko egitasmo bat abian** jartzea erabaki genuen 2006an.
- Azken urteotan, beste arlo batzuetan lanean aritu izan arren, **eskualdeko udaloi iritsi zaigu arlo honi heltzeko sasoia.**

EUSKARA PLANA IZATEAREN ONURAK


- Debabarreneko egitasmoa azaltzen hasi aurretik, **horrelako plan batek enpresa bati dakartzkion onurak** gogoratuko ditugu:
 - **Irudia hobetzeko modua.**
 - **Zerbitzuaren kalitatea hobetzea.**
 - **Bezeroak gustura izatea.**
 - **Langileak gustura izatea.**
 - **Enpresaren erantzukizun soziala betetzea.**

DEBABARRENA

- **Deba, Eibar, Elgoibar, Mendaro, Mutriku eta Soraluzek** osatzen dute Debabarrena bailara.
- Debabarreneko **biztanleen %60,2a euskalduna** da, eta datuak herriz herri hartuta, Deba, Mendaro eta Mutriku oraindik ere euskaldunagoak dira.
- Bailarako biztanleen **euskara gaitasuna gorantz** doa urtez urte.
- Eskualdeko **gazte gehienak euskarazko ereduetan ikasten** ari dira.
- Gazte horiek **lan munduan euskaraz integratzeak duen garrantzia estrategikoa** da.


EUSKARAREN EZAGUTZA LURRALDEKA

Euskararen Datu Basea 2001



- **Debabarreneko euskara ezagutza (%60,2) Gipuzkoakoaren (%51,5) gainetik dago eta EAEko euskara ezagutzaren portzentajea (%32,3) ia bikoiztu egiten du.**

EUSKARAREN EZAGUTZA HERRIZ HERRI (Eustat 2001)




- Debarrenen biztanleen % 60,2 euskaldunak dira, baina herriz herri hartuta, Deba (%76,2), Mendaro (%76,2) eta Mutriku (%86,1) euskaldunagoak dira.

EZAGUTZA DATUAK ADIN-TALDEKA (Eustat 2001)

Adin-taldea	Biztanleak	Euskaldunak %
2-14	5.098	83,9
15-24	6.878	83
25-64	30.310	50,6
>65	10.772	61,5

EUSKARAREN EZAGUTZA ADIN-TALDEKA (EDB 2001)




- Gazteen artean euskaldun kopurua askoz ere handiagoa da (%80tik gorakoa). Beraz, lan munduan integratzen ari diren belaunaldi berriak ia erabat euskaldunak dira.

EUSKARAREN KALE ERABILERA DEBABARRENEAN

Lurraldea	Urtea	Euskaraz %
Debabarrena	1993	25,8
Debabarrena	1997	30,4
Debabarrena	2001	37,7

- **Soziolinguistika Klusterrak egindako neurketen emaitzak, 1993-2001**

EUSKARAREN ERABILERA KALEAN (SEI 2001)



- Euskararen kale-erabilerak gorantz egin du Debabarrenean (%37,7), hazkundera askoz handiagoa izan da eskualdean Gipuzkoan (%29,9) eta EAEn (%13,5) baino.

DEBABARRENEKO LAN-MUNDUA

Udalerria	Enpresa-kopurua	Eskualdearekiko %
Mutriku	17	3,5
Mendaro	24	5,0
Soraluze	37	7,7
Deba	61	12,7
Elgoibar	137	28,6
Eibar	202	42,2
DEBABARRENA	478	100,0

- DEBEGESA, Debabarreneko Garapen Ekonomikorako elkartearen gidatik hartutako datuak.

ARDATZA egitasmoa

- Lan munduan euskararen erabilera sustatzeko Debabarreneko udalok **2006an abian jarritako egitasmoa.**
- Ekimen honen **helburua:**
 1. Debabarrenean **sustapen lana** egitea.
 2. Enpresek **euskara planak** martxan jartzea.
- Lan mundua **eremu estrategikoa** da euskararen erabilera normalizatzeko eta **erronka horri heltzeko unea iritsi zaigu.**
- **Enpresei lagundu nahi diegu** ekimen horretan.
- **Eskualde mailako ikuspegia** emanaz, egitasmoari **bultzada handiagoa** emango diogu.
- Lehenengo urtean **EMUN** enpresaren aholkularitza izan dugu eta gaur egun Jaurlaritzaren **LanHitz** egitasmoaren bat egin dugu.

2006an EGINDAKOAK LABUR-LABUR

- **Hiru prestakuntza saio:** udal teknikarientzat, ordezkari sindikalentzat eta udal agintarientzat.
- Martxoaren 21ean **Prentsaurrekoa** Debegesaren egoitzan.
- **50 langiletik gorako 45 enpresatara** bidali genuen planaren berri ematen zuen **gutuna eta triptikoa**.
- **10 langiletik gorako beste 120 enpresatara** ere bidali genuen **triptikoa** eta eurentzat propio antolatutako **aurkezpenetarako gonbitea**.
- EMUNeko teknikariarekin batera, **45 enpresa bisitatu genituen**.
- Azaroaren 7an “**Ateak zabalik**” **ekitaldia** Danobat enpresan.
- Sustapen lanaren ondorioz, **hiru izan dira plana abian jarri duten enpresak**.

2007an EGINDAKOAK LABUR-LABUR

- Urtarrilaren 10ean, **euskara planak sinatzeko ekitaldia** Debegegan.
- **Eusko Jaurlaritzaren LanHitz egitasmoarekin elkarlana.**
- **Jaurlaritzak 15 langiletik gorako 49 enpresa** bisitatu ditu Debarrenean, eta horietako **22k egin dute hasierako diagnosia.**
- **Sustapen lanaren jarraipena:** enpresetara gutunak, dirulaguntzen berri emanez eta euskara plana abian jartzera animatuz.
- Enpresetan euskara planak abian jartzeko **dirulaguntzak erabakitzea.**

DEBABARRENEKO ENPRESETAN EUSKARA SUSTATZEKO DIRULAGUNTZAK

- Debabarreneko enpresek **bi dirulaguntza** jasotzeko aukera dute:
 - UDALAREN DIRULAGUNTZA:
 - Lehentasuna dute euskara plana lehenbizikoz abian jartzen duten enpresek.
 - Dirulaguntza jaso ahal izateko, ezinbestekoa da Jaurlaritzan ere dirulaguntza eskaera aurkeztu izana.
 - Udalak enpresa bakoitzari, gehienez ere, 2.000 euroko dirulaguntza emango dio, eta Jaurlaritzak emandakoaren osagarri izango da. Gehienezko dirulaguntza, gastuen % 70 artekoa izango da.
 - EUSKO JAURLARITZAREN DIRULAGUNTZA:
 - Lan munduan euskararen erabilera areagotzeko planak laguntzeko deialdia (diseinua eta inplementazioa) egiten da urtero.

EUSKARA PLANA ABIAN DUTEN ENPRESAK DEBABARRENEAN

- “Euskara plana” diogunean, Diagnosian, Diseinuan eta Inplementazioan oinarritutako planetaz ari gara.
- Debabarrenean euskara plana abian zuten enpresak, **2002an 3** izatetik, **2007an 11** izatera pasa dira.
- Badira, euskara plana izan eta bukatutzat eman dutenak, edota plan egituraturik gabe, baina irizpide batzuk jarraituz, euskara sustatzen aritu direnak.
- Eta badira baita ere, inolako planik gabe, hasieratik, euskaraz funtzionatzen duten enpresak, adibidez, iaz IMHren mintegian omendua izan zen Etxepe.

AURRERA BEGIRA

- Debabarreneko lan munduan euskararen erabilera areagotzeko **sustapen lanarekin jarraituko dugu.**
- Enpresetako euskara **planak diruz lagunduko ditugu.**
- **Ardatza** eta **LanHitz** egitasmoak uztartzen saiatuko gara, **Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean.**

Eskerrik asko

2007ko urriaren 25ean

DEBABARRENEKO UDALAK

